

SOZIALISTEN BATASUNAZ

Batasuna erraz-erraza ez dala, edozeinek ulertzen du. Bakoitzak eraman duen burruka modaberri- tzea eskatzen bait zaie talde guziei. Organizazioaren estruktura berriz- tapena batipat. Ideologiari berari taxuketa berririk ematea. Ideolo- giazko zenbait puntu sakrifikatzea ere bai, beharbada. Ez, ideologia al- datzen delako. Baina bai, azentuak kanbiatzen direlako, momentuko premiei begira.

Halare, zaila ala erraza, batasuna behar-beharrezko gauza da. Behar- beharrezkoa da, masa organizazio zabala izango den organizazio bat eta bakarra euskaldun sozialista gu- zientzat. Horixe izateko estruktu- raz, ideologiaz, prentsaz, eta abar.

Bestela, egungo Euskal Herrian, despolitizazio faktorerik okerre- takoa sozialismoa bera bihur daki- guke. Hainbeste talde eta siglaren artean jendea deskonzertaturik gel- ditzen bait da. Sozialismoak bide

bat eman behar du. Ez hamaika.

Batasunik, hau, da, sozialisten el- kartasunik egongo balitz, mila posi- bilitate gehiago izango genuke, kan- painak aurrera eramateko. Ekintza diferente gehiago martxan jartzeko.

Baita programak prestatzeko ere. Izan ere, adibide bat bakarrik aterat- zeko: hainbeste talde bana-banaka dabilelarik, zenbat ekonomista izan dezake talde bakoitzak, onen- one- nean ere? Profesionalak izatea ez da dena, egia. Baina politikan pro- fesionalak ere behar dira. Eta ho- nek berdin balio du beste edozein gauzatan: arrantza arazoetan ala Deretxoan, euskal historian nahiz laborantzan.

Prensa arloan ere, esate batera- ko. Euskarazko prentsa aparte, Eus- kal Herrian egingo den erdarazko prentsak bere estrategia behar du. *Punto y Hora*, *Garaia*, *Berriak* eta besteek, nahitaez, *Cambio 16* bate- kin neurtu beharko dute. Euskal Herrian 150.000 ale zabaltzen omen ditu *Cambio 16* horrek... Eus- kal Herriko prentsak ez dauka hari banaka enfrentatzerik. Hau da, Euskal Herriak ez dauka Madrilgo informazio presioari buru egiterik, bakoitza bere aldetik dabilen doze- na erdi bat agerkarirekin.

Berriz esateko: organizazio BAKAR BATEN premiak ez du esan nahi, taldeek organizazio ho- netan urtu eta galdu beharko luke- tenik. lehen-lehenengo egunetik.

Esan nahi du bakarrik, nahitaez elkartasun izpiritu gehiago behar dela. Eta batasun organizazioak, efektibo izateko, benetako cran- tchukizuna behar duela: hots, delibe- ratzeko, erabakitzeke, agintzeko eta obeditua izateko ahalmena be- har duela. Eta hortarako tresnak. Aparatoa. Beraz, oraingo taldeak ere organizazio koherente bat bi- hurtuko direla.


Luzarora, ordea, berez datorrena dirudi horrek: organizazioak ongi funtzionatzen badu, Alderdi bat bakarra edo gehienez bi geldituko dira.

Talde difenteen batasuna ezin izan daiteke mahain batetan asma- tutakoa. Baina arian-arian praktiak ekarritakoa bai, izan daiteke, eta izan behar du. Hori, ordea, praksi- an aritzeko batasun organizatua ale- gia, aguro bai aguro behar da. Bihar baino hobe gaur. Eta atzo hobe.

Mila taldetxotan ibiltzeak, ho- nez gero, ez du zentzurik.●

JOXE AZURMENDI

AZKAR - MERKE - ONDO



● Etxeentzat, lantegientzat, illuluentzat, kirol-lekuentzat, eliza, zinema, pelotaleku, almazen eta abarrentzat zeramikazko gainak edo estalkiak prefabrikatzen dira.

● Arku tinkatuak eta sabalarentzat ha- beak.

● Nahi diren bezalako eta neurriko ohol- tzadurak. Lata matxenbratuak baino ho- beak eta jartzen errazagoak.

● Zernahitarako del ezazu leku haueta- koren batera:

Exklusiva:

CUNCHILLOS-LEACHE, S.A.
Iturralde y Sult, 11-6. dcha.
Teléfono: 233400 - Pamplona

Ordezkarialak:

ARABAN: Exclusivas Serrano: Portal de Arriaga, 14-bis-5.º - Tel. 243344 - Vitoria.

GIPUZKOAN: Mendizabal-Unanue: Mayor, 1-bajo - Tel. 358678 - Andoain.

NAFARROAN: Gabino Ochoa de Eribe: Carmen, 34-2.º Izda. - Tel. 211440 - Pamplona.

BIZKAIAN: Jesús de la Maza: Machín, 5- bis-5.º C - Tel. 4327266 - Bilbao-12.

LOGROÑON: Felipe Agorreta: Avda. Santi- ago, 5 - Tel. 645134 - Viana (Navarra).